


Akta/Kronika.

Lezon Energia Komunitatea Eratzeko Prozesua

5. saio irekia.

Pleno Aretoa [2025/01/27]

EBKren EGITURAKETA



1.- Deskribapena

1.1.- Oinarrizko informazioa.

- **Data:** Urtarrilak 27, astelehena.
- **Saioaren iraupena:** 1,5 ordu.
- **Ordutegia:** 18:30etatik 20:00etara.
- **Lekua:** Euskara Kultura Aretoan
- **Antolatzaileak:** Iratzerri eta Lezoko udala.
- **Dinamizazio taldea:**
 - Iratzerri eta Oier Etxebarria Gutierrez (Goienar)

1.3.- Parte-hartzaileak: Lezoko bizilagunak norbanako bezala eta herri eragileak

- **Guztira:** 17 pertsona.

- **Genero/sexu banaketa:**

- Emakumeak: 3

- Gizonak: 14

Adinaren arabera:

< 19 urte: 0

20 – 29 urte: 1

30 – 39 urte: 2

40 – 49 urte: 2

50 – 59 urte: 8

60 – 69 urte: 4

70 – 79 urte: 0

2.- Saioaren helburuak:

1. Lantaldeen lanak ezagutu

2. Lantaldeak osatu

3. Lantaldeetan lehen urratsak eman

2.- Edukiak

2.1.- Iratzerriren azalpenak

Ekaitzek bileraren nondik norakoak azaldu ditu. Aurreko saioaren balorazioa egin zuen eta etorri ez zirenentzako laburpentxo bat.

2.2.- Parte hartzaileen aurkezpena eta etortzeko arrazoia:

Eguneko gaia lantaldeak izanik, bakoitzak bere profila zein den azaldu du. Zer ikasketa, formazio edo zaletasun dituen adierazi du. Profil orotako jendea dagoela egiaztatu ahal izan dugu.

2.3.- Formazioa: EBK-re egituraketarako lantaldeak

Oierrek bilera hau prozesuaren zein puntutan dagoen azaldu du. Taldea funtzionatzen hasteko lantaldeak nola banatu daitezkeen azaldu du. 3 talde nagusi behar dira: Komunikazioa, Proiektuak eta Juridikoa. Informazio pilula euren zereginak azaltzean oinarritu da. (Pilula informatiboa iratzerri.eus atarian jarriko da eskuragarri). Prozesu honetatik aurrera Talde Sustatzailea desagertzen joango da Energia Komunitateak bere kabuz bidea egin dezan.

3.- Galde erantzunak

- Puntu honetatik aurrera Oierrekin zenbat bilera egingo diren galdetu da: 3-5 artean izango direla erantzun du Oierrek. Ondoren, bera etorriko ez bada ere Goinerren aholkularitza mantenduko dela adierazi du.
- Energia Komunitatearen xedeak eta estrategiak nola garatuko diren galde egin da: Lantaldeak bakarka eta batzar orokorrean (komunitatean) gainontzeko taldeekin hauek garatu beharko dituzte. Elkarren arteko komunikazioa izango da gakoa hau aurrera eramateko.

3.- Talde lana eta bat egitea.

Parte hartzaileak 3 taldetan banatu dira: Komunikazioan 7 partaide, Juridikoan 5 partaide eta Proiektuetan 5 partaide. Lantalde bakoitzari lantalde fitxa banatu zaio harremanetan eta lanketan lagungarri izan dezaten.

- **Komunikazio Taldearen akta:** (Martxelo, Tati, Jon, Kristina, Irati, Estanis, Ekaitz) Lantaldearen fitxa irakurri da eta amaierako galderak planteatu direnean elkarriktara abiatu dugu. Ideia jasa modukoa izan da, tartean galdera garrantzitsu bat sortu delarik zertarako eta nola komunikatuko gara? Akta burutzearekin batera ideiak honela antolatu dira:

0. Taldearen barne komunikazioa. (2 esfera bata bestearen barruan)

- Komunikazio lantaldea nork osatzen dugun eta gure artean nola komunikatuko gara? Biltegiratzea, emaila, mezularitza, bilerak...
- Lantalde honek lanerako prestutasuna behar du, baliabide informatikoak, bilera lekuak (Udala zertan laguntzeko prest?)
- Komunitate osoaren barne kanala. Aktak jaso eta informazioa non eta nola partekatuko dugu? Biltegiratzea eta emaila

1. Herriari prozesuaren berri ematea

- Udala eta komunitatearen arteko harremana nolakoa? Udalaren papera argitu eta nola zabaldu argitu (elkarlana), baliabideak eskatu (ekonomikoak, azpiegitura, teknikoak...) Iratzerri Ingurumen Elkartearen izaera baliatuz. Aipatu da besteak beste Oarsoaldea Energia aholkularitza bulegoa herrira ekartzeak energiara hurbiltzeko lagungarria izan daitekeela.

2. Herritarren kezka/gogoak jaso

- Herri guztia-rengana zabalduko.
- Kontzientziarazioa eta komunitatearen sustapenean lagungarria.
- Herritarren interesa eta ekarpenak erakarri xedeak zehaztu eta gerturatzeko (Iratzerri prozesua sustatzeko egindako lanaren erudia aipatu da: Inkesta, bilera informalak, bilerak herritarrek, merkatariek, eta elkarte eragileekin...)

3. Komunitatearen marka eta Marketing-a

- Talde Juridikoak 5 izen eskatu ditu komunitatearentzako. Hauek pentsatzen hasi beharra dago.
- Komunitatearen erakargarritasuna aurrezpen ekonomikoa, ingurumenaren zaintza... izango dira

4. Epe motzean **benetazko proiektu bideragarriak** behar dira jendea erakartzeko eta komunitatea sendotzeko prozesua bizirik mantendu ahal izateko

5. Nola harremanduko gara?

- Zein hizkuntzetan burutuko dira barne eta kanpo komunikazioa?
- Kanpo komunikazioa (Udalarekin, entitateekin, herritarrekin, merkatariekin...) nola burutuko dugu? Nortzuk dira eta izango dira interlokutoreak

- **Proiektuen lantaldearen akta:** (June, Juanan, Galvez, Mikel Suspe eta Jokin)

Lantalde honetara atxikitako partaideen ezagutza oso desberdina izan da, lehenengo gaia autokontsumo fotovoltaikoen inguruko mikropilula bat izan da. Nun, eguzkiaren kurba, 100kWp instalazioaren azalera gutxi gora beherakoa, partideen zatiketak, distantzia maximoa (2km), eta abar azaldu diren.

Beste zereginetan aipatu diren ekimenak hauek izan dira:

- Aholkulari lanetan jardungo garen irudipena, bulego bat irekiz tarteka.
- Teknologia desberdinen tailerrak antolatzekeo ideia, adibidez, biomasa inguruan, gertuko adibide bat hartuz baserriarrei erakutsi. Autokontsumo, aerotermia, micro hydro,...
- Lehenengo proiektuari begira beste EBK baten proiektuak ezagutu, bisitatu.

Zer behar dugun horretarako:

- Konpartitzeko gune informatiko bat
- Gure herramientak garatu, autokontsumoren inguruan
- Bazkideen kontsumo erudia ezagutu
- Udaleko teiltatuak erabiltzeko aukera eman, udalarekin harremana eta elkarlana
- Industrialguneko enpresen kontaktoak

- **Lantalde Juridikoaren akta:** (Eneko, Amaiur, Aitor, Mikel, Imanol)

Elkarturiko pertsonen artean eta aurreko bileretan parte hartu dutenen artean talde polita eratu da.

- Izaera juridikoak eta euren estatutuen ereduak aztertuko dituzte. Hernani (Enerkom) eta Errenteria (Ekiherri) EBK-kenak besteak beste eta baita estatutuen eredu garbiak ere.
- Goienerrek honetarako plataforma edo software baten ikastaroa eskaintzen du honetarako eta Mikelek bertan parte hartzeko konpromisoa hartu du.
- Komunitateraren xedeak zerrendatzen hasiko dira
- Hurrengo bilera baino lehen elkartzeko aukera jarri dute mahai gainean.
- Komunitazio lantaldeari komunitatearentzako 5 izen aurkezteko eskatu diete

5.- Hurrengo pausoak

Otsailak 10 astelehenean, bi aste barru alegia, elkartzea erabaki da.

Komunitatearen xedeak bateratzen hasteko garrantzitsua iruditu zaigu hurrengo bilerara arte gaurko lantaldeetan sortu diren ideietan bakarka edo taldeka hausnarketa burutzea eta lantzea. Modu honetan lantaldeetako proposamenak bateratzeko aukera izanik komunitateari planteatuz.

Denborarekin arazorik ez izateko ordu erdi lehenago elkartzea proposatu da: **18:00etik 20:00etara.**

Tokia zehaztuko da deialdiarekin batera, baina printzipioz Euskara Kultura aretoan izango litzateke.